



## 2020ko MAIATZAREN 19an EGINDAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO KONTSEILU ERREKTOREAREN BILKURAREN AKTA.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Lehendakaritzako eraikina, Nafarroa kalea 2, Gasteiz) eta 2020ko maiatzaren 19ko 10:30ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, eta honako pertsona hauek bertaratu dira:

- Bokala: Fátima Ansotegi Elordi andrea, Administrazio eta Finantzazio Sanitarioko sailburuordea, Osasun Sailaren izenean.
- Bokala: Jordi Campás jauna, Ekonomiako zuzendaria, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari (bertaratze telematikoa).
- Bokala: Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari (bertaratze telematikoa).
- Bokala: Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Lehendakaritzaren ordezkari.
- Bokala: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.
- Bokala: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Ezin etorria adierazi dutenak:

- Lehendakaria: Jonan Fernández Erdozia jauna, Agentziako eta Kontseilu Errektoreko lehendakaria, EAEko lehendakariak eskuordetuta (11/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa).
- Bokala: Diana Urrea Herrera andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari.
- Bokala: Eva Juez Garmendia andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari.

Era berean, gai-zerrendan dauden gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzearen, honako hauek ere bertaratu dira, gonbidatuta: Cristina Ocio andrea, auditora, Blanca Pérez Jiménez andrea, GLEAko Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna eta Ainara Arrieta Archilla GLEAko Koordinazio Teknikoko arduraduna.

## Sarrera

Idazkariak hartu du hitza bertaratuei ongietorria egiteko eta lehendakari Jonan Fernández jaunaren ezin etorria adierazteko.

Fátima Ansotegi Elordi andrea izango da bilkuraren buru, eta honako hau izango da bilkuraren gai-zerrenda:

1. 2020ko otsailaren 11n egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
2. 2019ko urteko kontuak onartzea
3. 2020ko Funts Banagarrien aldaketa onartzea
4. 2020rako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea
5. 2020ko deialdien behin-behineko egutegiaren aldaketa onartzea
6. Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.
7. EGL programarako Gazteria Zuzendaritzarekin adostutako lankidetzahitzarmena onartzea
8. Beste informazio batzuk.
9. Galde-eskeak

### 1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2020ko otsailaren 11ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoarekin.

### 2. 2019ko urteko kontuak onartzea

Onartuak izan daitezten aurkeztu dira GLEAren Urteko Kontuak. Cristina Ocio auditoreak azaldu duenez, 2019. urtean nabarmentzekoa da Gasteizko Gaztelako Atea kaleko 15. zenbakian dagoen eraikinaren gunen jakin batzuk GLEAri adskribatu izana, erakundearen egoitza berria kokatuko den eraikinean.

Era berean, erakundearen izaera publikoa eta lankidetzajardueraren sustatzaile gisa duen jardunaren izaera kontuan izanda, eta Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak onartutako 9/2013 Zirkularra aplikatuz, 2020. urte honetako 2019. urteko ordainketei dagokien periodifikazioa 1.139.772,07 € da guztira.

Fátima Alonsotegik adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola Urteko Kontuak onartzea. Bozkatu egin da eta onartu egin da bilkuran dauden Kontseilu Errektoreko kide guztien aldeko botoekin.

### 3. 2020ko Funts Banagarrien aldaketa onartzea

2020ko Funts Banagarriak aldatzeko proposamena aurkeztu da onartua izan dadin. Proposamen horretan, Agentziaren zuzeneko dirulaguntzetara eta deialdietara bideratutako zenbateko globalak eta ehunekoak zehaztu dira, baita erakunde bakoitzak eskuratu ahal izango dituen funtsen gehieneko zenbatekoa ere (funts banagarrien % 7).

Paul Ortegak azaldu duenez, proposatutako aldaketaren helburua COVID-19aren krisialdi sanitarioak eragindako krisi- eta zalantza-egoerari behar bezala erantzutea da. Aldaketa-proposamenaren dokumentazioa aldeztu aurretik igorri zaie Kontseilu Errektorea osatzen dutenei.

Ondoren, Ainara Arrietak proposatutako aldaketaren termino orokorrak azaldu ditu:

- 2,6 milioi euroan gehitzen da ekintza humanitarioko proiektuen modalitatea (PRE, linea ireki eta iraunkorra). COVID-19tik eratorritako egoerei hobeto erantzun diezaiokeen tresna dela uste dugu (agenteen aniztasun handiagora iristeko aukera eta funtsak agortu arte irekitzea).
- NBE Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeetako boluntarioentzako beken deialdia eta EGL Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa bertan behera geratu dira nazioarteko mugikortasunak dituen murrizketak direla eta. Eta EHE Ekintza Humanitarioko Estrategien modalitatea, lehenetsunekoak hartzen delako baliabide horiek linea ireki eta iraunkorrera bideratzea.
- Zuzeneko esleipenei bideratutako zenbatekoa murrizten da. Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana zehazteko estrategikoak direnak lehenesten dira. Gainera, zenbait baliabide erreserbatzen dira nazioarteko deien bidez COVID-19aren krisia artatzeko.

Instrumentuen eta instrumentu horien hurrenez hurrenko ordainketa-sistemen arteko banaketa berri horren arabera, 2020an banatu beharreko funtsen kopuru totala 40,4 milioi eurora iristen da eta erakunde bakoitzak baliatu ahalko duen gehieneko kopurua 2,8 milioi euro izango da (funts banagarrien % 7).

Fátima Ansotegik adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola proposamena onartzea. Bozketa egin da eta onartu egin da Fátima Ansotegi, Mónica Hernando, Jordi Campás, Jone Fernandez eta Paul Ortega jaun-andreen botoarekin, eta Patricia Bárcena, Sofía Marroquin eta Josu Urrutia jaun-andreen abstentzioarekin.

#### **4.- 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea.**

2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aurreko puntuan bildutakoari jarraikiz aldatu da, aurreikusitako eskaeren estimaziora egokituz, aurreko urteetako ehunekoak kontuan hartuta.

Fátima Ansotegik adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola proposamena onartzea. Bozkatu egin da eta onartu egin da aurreko puntuan ezarritakoari jarraikiz.

#### **5. 2020ko deialdien behin-behineko egutegiaren aldaketa onartzea**

Proposatutako aldaketa azaldu du Paul Ortegak. GBA Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuen eta BEK Espezializazio beken deialdiak (hasiera batean irailerako aurreikusiak) aurreratzea proposatu da deialdi horien kudeaketa zailduko duen udazkeneko krisi sanitarioaren gorakada posible bat saihesteko.

Fátima Ansotegik adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola deialdien egutegi berria onartzea. Bozkatu egin da eta onartu egin da bilkuran dauden Kontseilu Errektoreko kide guztien aldeko botoekin.

#### **6. Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.**

Zuzenean esleitzeko 10 proposamen onartzea proposatu da 1,7 milioi euroko balioaz. Proposatutako laguntza bakoitzaren dokumentazioa aldeztatik igorri zaie Kontseiluko kideei.

Paul Ortegak adierazi duenez, ekimen horiekin agente eta gai estrategikoak sendotuko ditugu IV. Gida Plana garatzeko: sexu- eta genero-dibertsitatea, eta teknologia egokiak Afrikarako; Giza Eskubideen defendatzaileak Palestinan eta Mesoamerikan; laguntza Kolonbiako eta Afrikako bake-prozesuetarako, besteak beste. Era berean, COVID-19aren krisialdia dela-eta Palestinako biztanleria artatzeko UNRWA erakundearen dei humanitarioarekin bat egiteko proposamena ere igorri da.

Ainara Arrietak proposamen bakoitzaren xehetasuna azaldu du erantsitako koadro batekin.

Fátima Ansotegik adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola zuzenean emateko proposamenak onartzea dagokion izapidetzeari hasiera eman ahal izateko. Bozkatu egin da eta onartu egin da bilkuran dauden Kontseilu Errektoreko kide guztien aldeko botoekin.



## **7. EGL Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako Gazteria Zuzendaritzarekin adostutako lankidetzaz hitzarmena onartzea**

Paul Ortegak azaldu du Gazteria Zuzendaritzaren eta GLEAren arteko lankidetzaz akordio bat dela EGL Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa kudeatzeko eta garatzeko. 27 urte dira Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza –lehenik– eta GLEA – 2011n sortu zenetik– programarekin lankidetzan ari direla, eta akordio honen hurreneko aurrekaria bi alderdiek 2015eko maiatzaren 6an sinatutako akordioa da.

Fátima Ansotegik adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola lankidetzaz hitzarmen hori onartzea. Bozkatu egin da eta onartu egin da bilkuran dauden Kontseilu Errektoreko kide guztien aldeko botoekin.

## **8. Beste informazio batzuk**

Paul Ortegak jakinarazi duenez, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekimenez, 17 autonomia-erkidegoek eta Lankidetzaz eta Elkartasun Fondeoaren Konfederazioak baterako deklarazio bat aterako dute maiatzaren 25ean COVID-19aren krisialdiari erantzunez: “Krisialditik lankidetzarekin aterako gara”. Era berean, autonomia-erkidegoek baterako keinu bat egingo dute 2.455.000 euro Saharako eta Palestinako errefuxiatuen alde bideratuta, kalteberatasun-egoera berezian baitaude COVID-19aren testuinguruan.

## **9. Galde-eskeak**

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat jo da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenean paragrafoan aurreikusitakoa betetz, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE. Jonan Fernández Erdozia jauna,  
Agentziaren eta bere Kontseilu  
Errektorearen lehendakaria, EAEko  
lehendakariak eskuordetuta (11/2017  
Dekretua, apirilaren 25ekoa).

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektorearen idazkaria  
GLEAren zuzendaria